

Bat bera ere ez gehiago



-Jainkoak gizadia sortu zuenean, pertsonak bere antzera egin zituen. Horregatik, jaiotzen den haur oro, Jainkoaren aurpegi berri bat da mundura datorrena. Gaizkiaren Jaun Hunhau-ek<sup>1</sup> ez zuen hori atsegin, eta oso bekaizti sentitu zen, eta jaiotzen zen haur bakoitzeko zerga moduko bat kobratzea erabaki zuen. Horregatik, haur kopuru jakin bat jaio ondoren, ama bat hiltzen da erditzean. Zerga hori emakume askok ordaindu behar dute erditzen direnean; normala da eta horixe gertatu da betidanik. Neyvik bost seme-alaba izan ditu jadanik, eta, antza, Hunhauk dagokion zerga kobratu nahi du orain.

- Tira, ama, erditze horretan konplikazio asko sortu dira, eta Neyvi ahulegia zegoen horri aurre egiteko. Denbora eman behar diogu sendatzeko. Ez da Hunhauk bere zerga kobratzeko unea, nik hori ekidin dezakedan bitartean behintzat.

Melva gustura egoten zen amari eta amonari entzuten. Haren familian emakumeak emaginak ziren aspalditik. Amonak erakutsi zion amari, eta orain berari zegokion ikastea. Indigena maia batentzat oso garrantzitsua da honelako tradizio batekin jarraitzea. Amonak, bere adina zela eta, ez bazuen horretan jarduten ere, Kandelariari, Melvaren amari, asko gustatzen zitzaion kasu guztiak kontatzea, eta Melvak horiek entzunez ikasten zuen.



<sup>1</sup> Mitologia maiaren arabera, Hunhau kristautasunean deabrua bezala da. Guatemalan, beste erlijio batetik kristautasunera aldatu ziren Ameriketako zonalde indigena askotan bezala, sineskerak nahasi egiten dira oraindik ere nolabait.



**M**elvaren familia guztia Guatemalan bizi da, Totonicapan probintzian, herrialdearen mendebaldean. Oso zonalde menditsua da eta jendea herrixketan barreiatuta bizi da. Neyvi beste herrixka batean bizi da, gorago, mendian. Jendea behartsua da oso, eta gutxi dira osasun-laguntza izan dezaketenak; hori horrela, familiek beraiek moldatu behar dute, neurri handi batean, gaixotasunak tratatzeko. Badago herri-osasun sare bat ere, baina hemengoak, gehienez ere, ikastaro trinko bat hartutakoak dira: osasun-sustatzaileak, emaginak, osagile indigenak etab.

Hemen, 10 erditzetik 9, emagin tradizionalak artaturikoak dira, urteetan euren ezagutzak bata besteari transmitituz joan direnak. Zorionez, gauza batzuk aldatzen ari dira, eta Kandelariak irabazi-asmorik gabeko tokiko erakunde batek emagin izateko eskaintzen duen ikastaro bat jaso du, hots, Mendebaldeko Sustapen, Ikerketa eta Hezkuntzarako Elkartea. Osasunaren eta erditzearen oinarriko gaiak erakutsi dizkiote, baita haurdunaldian arazoak nola lokalizatu ere<sup>2</sup>. Melva hor ikasitako guztia gauzatzeko irrikatan dago, baina horretarako oraindik urte batzuk geratzen zaizkio; bien bitartean, amari galdetzeko eta hark esandakoaz ikasteko baliatzen du.

Duela egun batzuk bere amaren bila etorri ziren ilunabarrean. Emakume bat erdiminetan hasi zen aurreikusitakoa baino aste batzuk lehenago. Egun horretan amak ez zion utzi berarekin joaten.

Erditze zaila eta konplikatua antzeman zuen Kandelariak, eta amarentzat nahiz haurarentzat arrisku handia zegoela iritzi zion. Totonicapan hirira eraman behar zela erabaki zuten. Senitartekoek esku-ohea prestatu, eta mendian behera abiatu ziren; Kandelariak, berriz, Neyvi artatzen zuen ahal zuen moduan. Lau ordu eman zituzten mendi-bide haietan, errepide batera noizbait iritsi, eta ospitale txikira eraman zuen auto bat geldiarazi zuten arte. Hezkuntza eta trebakuntza oso gutxi izan arren, Kandelariaren ezagutzak Neyvi eta haren semearen bizia salbatu zuten.

Egun batzuk ospitalean ingresatuta eman ondoren, bere herrixkara itzuli behar izan zuen, nahiz eta oraindik oso ahula egon. Kandelaria ia egunero joaten zen artatzera.

<sup>2</sup> Ikastaro hauek Esku Elkartuak erakundeak finantzatzen duen proiektu baten barruan daude.





**A**zkenik, haurra izan eta handik hiru astera, Neyvi hobeto zegoen, eta Melva ama-  
rekin joan zen bisitan. Neskato txiki bat gerturatu zitzaion, eta emaginaren alaba zen  
galdetu zion. Baietz esandakoan, trapuzko panpina bat eman zion neskatoak irribarre  
sotil batekin.

- Hau zuretzat da. Neyvi nire ama da.

Une horietan Melva alaitasunez betetzen zen, halako ama bat izan eta, beste  
behin ere, Hunhau burlatu zuelako. Melva eskolara joaten zen, eta jakin bazekien  
antzinako legenda eta tradizioen atzean gaixotasunak zeudela osasun-laguntzarik eta  
sendagairik ez zegoelako. Horrek min egiten zion, eta prest zegoen behar  
bezainbeste ikasteko, eta, bere aldetik behintzat, Hunhauk zerga txit gutxi  
obratzeko.

